



**LANBIDE PROGRAMACIÓN
HEZIKETAKO ZIKLOEN DE LOS CICLOS FORMATIVOS
PROGRAMAZIOA DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



GIZARTE
ETA KULTURA
ZERBITZUAK

**HAUR-HEZKUNTZA
GOI-MAILAKO TEKNIKARIA**

7. modulua: **Gizarte-Trebetasunak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA

DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN

**LANBIDE
HEZIKETAKO ZIKLOEN
PROGRAMAZIOA**

**PROGRAMACIÓN
DE LOS CICLOS FORMATIVOS
DE FORMACIÓN PROFESIONAL**



**GIZARTE ETA
KULTURA
ZERBITZUAK**

HAUR-HEZKUNTZA GOI-MAILAKO TEKNIKARIA

7. modulua: **Gizarte-Trebetasunak**

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

**HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILA**
Lanbide Heziketako eta Etengabeko
Ikaskuntzako Sailburuordetza

**DEPARTAMENTO DE EDUCACIÓN,
UNIVERSIDADES E INVESTIGACIÓN**
Viceconsejería de Formación Profesional
y Aprendizaje Permanente

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2009

Argitaraldia: 1.a, 2009ko ekaina

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila

Internet: www.euskadi.net


Egilea: Ana Arispe Abalde

Argitaratzailea eta Koordinazioa: Víctor Marijuán Marijuán
KOALIFIKAZIOEN ETA LANBIDE HEZIKETAREN EUSKAL INSTITUTUA
INSTITUTO VASCO DE CUALIFICACIONES Y FORMACIÓN PROFESIONAL
www.kei-ivac.com



Diseinua eta diagramazioa: TRESDETRES

L.G.: BI-1757-09



Iraupena: 132 ordu
UDen kopurua: 4

Esku artean duzun argitalpen hau lanean ari diren lankideek landu dute.

Edozein gairen programazioa oso lan pertsonala da, irakasle bakoitzaren esperientzian oinarritua eta, horrenbestez, subjektiboa. Premisa hori kontuan izanik, programazioa aztertzeraz eta egoki baderitzozu kontsultarako material gisa erabiltzeraz gonbidatzen zaitugu. Zure irakasle-lana bideratu dezakeen gida gisa ere baliagarria izan dakizuke.

Izan ditzakeen mugak aintzat hartu badira ere, heziketa-ziklo berrien OCDak abiapuntu izanik sortu eta diseinatu da, eta EAEn curriculum-diseinuaren eta irakaskuntza-programazioaren arloan indarrean dagoen legeria hartu da kontuan (otsailaren 26ko 32/2008 Dekretua).

Erabilgarria izan dakizun espero dugu, eta, aldi berean, egileek lan honetan egindako ahalegina eskertzen dugu.


AURKIBIDEA

	UD-EN SEKUENTZIAZIOA ETA DENBORALIZAZIOA	04. or.
0	0. unitate didaktikoa: Moduluaren aurkezpena	05. or.
1	1. unitate didaktikoa: Gizarte harremanak errazten dituzten komunikazio estrategiak eta teknikak	08. or.
2	2. unitate didaktikoa: Lan taldeak dinamizatzea	19. or.
3	3. unitate didaktikoa: Bilerak zuzentzea	27. or.
4	4. unitate didaktikoa: Gatazkak kudeatzea eta erabakiak hartzea	35. or.

Unitate didaktikoen sekuentziazioa eta denboralizazioa

EDUKI MULTZOAK					UNITATE DIDAKTIKO SEKUENTZIATUAK	IRAUPENA
B 1	B 2	B 3	B 4	B 5		
					UD 0: Moduluaren aurkezpena.	1 h.
X				X	UD 1: Gizarte harremanak errazten dituzten komunikazio estrategiak eta teknikak.	33 h.
X	X			X	UD 2: Lan taldeak dinamizatzea.	33 h.
X		X		X	UD 3: Bilerak zuzentzea.	32 h.
X			X	X	UD 4: Gatazkak kudeatzea eta erabakiak hartzea.	33 h.
GUZTIRA						132 ordu

- 1.- *Gizarte-harremanak eta komunikazioa errazten dituzten estrategiak eta teknikak erabiltzea.*
- 2.- *Lan-taldeak dinamizatzea.*
- 3.- *Bilerak zuzentzea.*
- 4.- *Gatazkak kudeatzeko eta erabakiak hartzeko estrategiak erabiltzea.*
- 5.- *Gizarte-kompetentzia eta taldeko prozesuak ebaluatzea.*



0. unitate didaktikoa: MODULUAREN AURKEZPENA		Iraupena: 1 ordu				
<p>Ikaskuntzaren helburuak:</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Moduluren garapenaren plangintza orokorra ezagutzea, baita taldeko kideak ere. 2. Irakasleak prestakuntza-prozesuaren kudeaketan aintzat hartu eta aplikatuko dituen irizpideak ulertzea. 3. Ikasleak moduluari dagokionez dituen eskubideak eta betebeharrak identifikatzea. 4. Moduluren unitate didaktikoen arteko eta moduluren eta beste moduluen arteko lotura nagusiak ulertzea. 5. Norberaren jakintzak identifikatzea, moduluan lortu behar diren jakintzei dagokienez. 						
EDUKIAK		Multzok				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloko moduluen arteko eta zikloaren eta erreferente dituen kualifikazioen arteko loturak aztertzea. • Diziplinaren, metodologiaren, erlazioen eta antzeko beste gaien inguruan planteatzen diren alderdiak, arauak eta elementuak identifikatzea, eta euskarri egokian erregistratzea. 					
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Zikloa osatzen duten kualifikazioak eta moduluarekiko lotura. • Moduluren ekarpena zikloko helburuak lortzeko garaian. • Moduluren helburuak. • Modulua eta unitate didaktikoak ebaluatzeko irizpideak. 					
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko kide guztiengan, baita irakaslearengan ere, desiragarriak diren portaeren inguruan adostasuna lortzearen garrantzia baloratzea. • Moduluren garapenean jarraitu beharreko arauak eta irizpideak. 					



JARDUERA					METODOLOGIA			BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
			Ir.	Ik.				
J1 Irakaslearen aurkezpena.	1	10 m.	X	X	Irakasleak eta ikasleek nork bere burua aurkeztuko dute. Irakasleak iradokiko ditu aurkezpenean interesgarriak izan daitezkeen alderdiak, eta informazio bat edo bestea ematea hautazkoa izango da.	Helburua da hasierako ezagutza lortzea eta gizarte-oztopoak haustea, taldeko kideen arteko komunikazioa erraztearren. Aurreko ikasturteko sortutako taldea denean, ez da jarduera hau beharrezkoa izango.	Ez da bitarteko berezirik behar.	
J2 Programazioa osatzen duten elementuen aurkezpena.	2-4	10 m.	X	X	Irakasleak programazioa osatzen duten elementuak, ordutegiak eta abar aurkeztuko ditu, eta, horretarako, eskema bat erabiliko du edo baliabide informatiko bidezko aurkezpena egingo du.	Ikasleek moduluaren gaiaren programazioari, egiturari, loturei, denborari eta iraupenei buruzko ikuspegi orokorra jaso beharko dute, besteak beste.	Arbela. Power Point-eko aurkezpena edo antzekoa. Kronogramak Informazioa duten fotokopiak.	
J3 Prestakuntza-prozesuaren kudeaketa gidatuko duten irizpideen eta arauen aurkezpena.	2-3	10 m.	X	X	Irakatsi eta ikasteko prozesua kudeatzeko erabiliko diren askotariko irizpideak ezagutaraziko ditu irakasleak. Gardenkiez edo beste elementu batzuek lagundutako ahozko azalpena erabiliko du. Hortaz, azterketak zuzentzeko eta ebaluatzeko irizpideak, barne-erregimeneko araudia, diziplina-erantzukizunak, eta abar azalduko ditu. Zalantza guztiak argitzeko denbora-tartea zabalduko da.	Horrela, ikasleek ikasketa, gizarte eta harremanen arloko esparrua ezagutu eta ulertuko dute, eta arauzko esparru horretara moldatu ahal izango dute haien jarduna.	Ikasgelan edo lantegi-ikasgelan egin daiteke jarduera, eta ez da baliabide berezirik behar.	
J4-E1 Egin beharreko lanbide-moduluaren gainean ikasleek aurretik dituzten ezagupenen identifikazioa.	5	30 m.	X	X	Jarduera hori elkarrizketaren bidez garatu ahal izango da, baita ikasleek erantzun beharreko irakaslearen galderen bidez, edo, bestela, ondorio horretarako prestatutako galdera irekien bidez edo erantzun anitzeko galderak dituen galdera sorta baten bidez.	Moduluan garatuko diren edukiei dagokienez, ikasleen abiapuntuko jakintza-maila ezagutu nahi da. Abiapuntuko jakintza hori ezagutzeak programazioa berregituratzeko eta taldearen eta gizabanakoen errealitatera egokitzeko aukera emango dio irakasleari.	Galdera sortak.	



OHARRAK

- Nahikoa izango da J1 jarduera moduluetakoren batean egitea. Zikloko taldeak adostu beharko du zein modulutan egingo den.
- J4 jarduera mantendu ahal izango da, nahiz eta unitate didaktikoetako bakoitzean hasierako ebaluazioa banean hartzen duen jarduera egin. Bi jarduera horiek bateragarriak eta osagarriak izango dira beti. Aurretiazko jakintzetarako lehen hurbilketa izan daiteke, ondoren, unitate bakoitzean abiapuntuko jakintza horretan gehiago sakontzeko.
- Modulu honen unitate didaktikoetan, jarduerak irakatsi eta ikastekoak (J) edo ebaluaziokoak (E) izan daitezke. Zenbaitetan, jarduera bera, irakatsi eta ikastekoa ez ezik, ebaluaziokoa ere izan daiteke. Halakoetan, jarduera hori (Jn-Em) gisa adieraziko da eta hiru motak bilduko ditu. J-en zenbakikuntza (n) eta E-ena (m) elkarrekiko independenteak dira.



1. unitate didaktikoa: GIZARTE HARREMANAK ERRAZTEN DITUZTEN KOMUNIKAZIO ESTRATEGIAK ETA TEKNIKAK Iraupena: 33 ordu

JE 1: Komunikazioa eta ingurunearekiko gizarte-harremana errazteko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu eta emozio- eta gizarte-adimenarekin erlazionatzen ditu.
JE 5: Haur-hezitzaileak dagozkion lanbide-eginkizunak betetzeko duen gizarte-kompetentzia eta taldeak dinamizatzeko eta zuzentzeko gaitasuna ebaluatzen du, eta bizitza osoan baitako ikaskuntza aztertu eta hobetu daitezkeen alderdiak edo adierazleak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Emozio- eta gizarte-adimenaren printzipioak deskribatzea.
2. Gizarte-trebetasunak lanbide-eginkizuna garatzean duten garrantzia baloratzea.
3. Komunikazio-prozesu baten etapa desberdinak identifikatzea.
4. Komunikazio-estilo desberdinak eta horien abantailak eta mugak identifikatzea.
5. Komunikazioa eragozten duten oztopo eta interferentzia nagusiak identifikatzea.
6. Pertsonen arteko harremanetan ahozko komunikazioa erabiltzeko duen garrantzia baloratzea.
7. Komunikazio eraginkorra ezartzea eginkizunak banatzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko.
8. Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea.
9. Pertsonalki komunikatzea, komunikazio enpatikoa eta asertiboa baliatuz.
10. Gainontzekoak ez epaitzea eta pertsonen elementu bereizgarriak errespetatzea: emozioak, sentimenduak, nortasuna.
11. Aldaketaren aurrean eta inguruko gertaeretatik ikasteagatik jarrera positiboa erakustea.
12. Pertsonen arteko harremanetan eta komunikazio-harremanetan trebetasun egokiak garatzeko orduan autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratzea. Hobetu beharreko egoerak identifikatzea eta profesionalak landutako prozesuaren hasierako eta amaierako autoebaluazioa egitea.
13. Lanbide-profil propioaren eta beste antzeko profil batzuen printzipio deontologikoak deskribatzea.
14. Adierazleak aukeratzea, ebaluazio-tresnak diseinatzea eta datuak alde zuzenetik ezarritako euskarrietan erregistratzea eta interpretatzea.
15. Gizarte-ikerketako eta ikerketa soziometrikoko teknikak aplikatzea.

EDUKIAK		Multzok				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazioaren eta bizi-kalitatearen arteko erlazioa aztertzea, esku hartzeko esparruetan. • Komunikazio eta gizarte-harremanetako printzipioak emozio- eta gizarte-adimeneko printzipioekin erlazionatzea. • Komunikazio eraginkorra ezartzea eginkizunak banatzeko, jarraibideak jasotzeko eta ideiak edo informazioa trukatzeko. • Komunikazio enpatikoa eta asertiboa ezartzea. • Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea. • Lortutako emaitzak kontuan hartuta, hobekuntza-jarraibide egokiak ezartzea. 	X				



	<ul style="list-style-type: none"> Profesionalaren abiapuntuko egoera pertsonalaren eta gizarte-egoeraren, prozesuaren eta amaierako egoeraren autoebaluazioa egitea, hobetu daitezkeen alderdiak identifikatuz. 					X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-trebetasunak eta antzeko kontzeptuak. Komunikazio-prozesua. Etapak. Ahozko komunikazioa, ez-ahozkoa eta paralinguistikoa. Bideratzaileak eta oztopoak komunikazioan. Testuinguruaren komunikazio-balorazioa: bideratzaileak eta oztopoak komunikazioan. Emozio-adimena. Emozioak eta sentimenduak. Emozio-hezkuntza. Gizarte-adimena. Defentsa-mekanismoak. Komunikazio-programak eta –teknikak eta gizarte-trebetasunak. Komunikazio-estiloak: estilo oldarkorra, inhibitua/pasiboa, asertiboa. Haur Hezkuntzako Teknikariaren eta antzeko beste profil batzuen printzipio deontologikoak. Datuak biltzea. Informazioa jasotzeko tresnak. Tresnak diseinatzea. Emaitzak aztertzea eta interpretatzea. Lortutako emaitzak kontuan hartuta, hobekuntza-jarraibide egokiak ezartzea. Haur-hezitzailearen hasierako prestakuntzaren eta bizitza osoan baitako prestakuntzaren azterketa eta prozesua. 	X X X X X X X X X X X				X X X X X X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-trebetasunek lanbide-eginkizuna garatzean duten garrantzia baloratzea. Pertsonen arteko harremanetan ahozko komunikazioa, ez-ahozkoa eta komunikazio paralinguistikoa erabiltzeak duen garrantzia baloratzea. Gainontzekoak ez epaitzea eta pertsonen elementu bereizgarriak errespetatzea: emozioak, sentimenduak, nortasuna. Aldaketaren aurrean eta inguruko gertaeretatik ikasteagatik jarrera positiboa erakustea. Pertsonen arteko harremanetan eta komunikazio-harremanetan trebetasun egokiak garatzeko orduan, autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratzea. Autoebaluazioa baloratzea, gizarte-kompetentzia hobetzeko estrategia gisa. 	X X X X				X



JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.		30 min.	X		Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itzaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik egindako inkesta.
J1 Komunikazioaren garrantziari buruzko azalpena, fabula bat erabiliz, "mirotzarena" adibidez, eta ez-ahozko komunikazioaren eta ahozkoaz gaineko komunikazioaren arteko desberdintasunei buruzko azalpena.	2, 3, 6, 8, 12	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, komunikazio eraginkorrari buruz. Ez-ahozko komunikazioa eta ahozkoaz gaineko komunikazioa eta bakoitzaren zatiak bereiziko ditu.	Ikasleek komunikazio mota desberdinak ezagutuko dituzte eta mezu bat modu egokian komunikatzeko autobehakuntza egingo dute. Ez-ahozko komunikazioak emozio-adimenean duen garrantziari buruzko gogoeta egingo dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J2-E1 Banakako lana, ez-ahozko komunikazioa osatzen duten elementuen (irribarre, begirada, keinu, eta abarren) eta ahozkoaz gaineko komunikazioa osatzen dutenen (tonu, bolumen, abiadura, eta abarren) berariazkotasunei buruzko informazio osagarria bilatzeko.	2, 3, 6, 8, 12	2 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, ez-ahozko komunikazioak eta ahozkoaz gaineko komunikazioak barne hartzen dituzten elementuei buruz.	Ikasleek komunikazio egoki eta eraginkor baten alderdi guztiak ezagutu eta menperatzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

J2.1-E1.1 Talde-lana: horma-irudi bat egitea, argazkiak eta/edo marrazkiak erabiliz ez-ahozko komunikazio egokiak eta ahozkoaz gaineko komunikazio egokiak islatzeko.				X	Ikasleek horma-irudi bat osatuko dute, ez-ahozko komunikazioa eta ahozkoaz gaineko komunikazioa osatzen duten elementuak islatzeko.		
J3 Komunikazioaren bideratzaileak erabiltzeak duen garrantziari buruzko azalpena. "Ostra eta arraina" fabula erabil daiteke. Komunikazioaren oztopatzaileak landuko dira halaber.	1, 2, 4, 5, 10, 12	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, komunikazioa errazten eta oztopatzen duten elementuei buruz.	Ikasleek komunikazio eraginkorraren eta ez-eraginkorraren abantailak eta desabantailak ezagutuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J4-E2 Rol-playing-a: eguneroko bizitzako egoera desberdinak antzetzuko dituzte ikasleek, eta autoebaluazioa egingo dute, komunikazioa oztopatzen duten elementuak martxan jarri. Egoera berbera errepikatuko da, komunikazioa errazten duten elementuekin oraingoan.	1, 2, 4, 5, 10, 12	1,5 h.		X	Ikasleek landutako edukiak antzetzen baten bitartez islatuko dituzte: komunikazioa errazten, oztopatzen eta, batzuetan, eragozten duten elementuak azalduko dituzte.	Grabaketa ikusi ondoren, ikasleak autoebaluazioa egin eta hobetzeko jarraibideak ezarriko ditu.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J4.1-E3 Jarduera grabatu egingo da, ondorengo ebaluazioa eta ikasleen autoezagutza erraztu eta hobekuntzak ezartzeko.				X			
J5 Komunikazio-estilo desberdinei buruzko azalpena: Pasiboa, asertiboa eta oldarkorra.	2, 3, 4, 6, 7, 10, 11, 12	1,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, komunikazio-estilo desberdinei buruz.	Ikasleek komunikazio-estilo oldarkorra, asertiboa eta pasiboa edukitzeak dituen abantailak eta desabantailak ezagutzeko balioko du.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J5.1-E4 Ikasleen praktika autonomoa: eguneroko bizitzarekin eta etorkizuneko lanbidearekin erlazionatutako egoera desberdinen aurrean erantzun asertiboa, pasiboa eta oldarkorra emango dute,				X	Ondoren, ikasleek komunikazio-estilo asertiboa, pasiboa edo oldarkorra aukeratu, simulazioa egin eta aukeratutako estiloarekin enpatizatu ondoren, euren bizitza pertsonalean eta		

ahozko komunikazioa, ez-ahozko komunikazioa eta ahozkoaz gaineko komunikazioa kontuan hartuta.					profesionalean eragiten diren ondorioak aztertuko dituzte.		
<p>J6 Komunikazio-estilo asertiboaren eta emozio-adimenaren garapen egokiaren arteko erlazio estuari buruzko azalpena.</p> <p>J6.1 Emozio- eta gizarte-adimenaren eta balioen esparruan aditua den hezkuntza-espezialista baten hitzaldia.</p>	1, 2, 4, 6, 7, 9, 10, 11, 12	2 h.	X	X	<p>Irakasleak klase magistrala emango du komunikazio asertiboaren abantaileri buruz eta ondo prestatutako emozio-adimena edukitzearekin dituen antzekotasunei buruz.</p> <p>Jaio eta lehenengo urteetan familiaren baitan emozio-adimen osasungarria sustatzeko oinarriari buruz hitz egingo du espezialistak.</p> <p>Ondoren, ikasleek txostengileak azaldutako ideia nagusien inguruko hausnarketa landu eta irakasleari aurkeztuko diote.</p>	<p>Ikasleek jaio eta lehenengo urteetatik gizarte/emozio-adimenaren garapen egokia eta ezagutza-adimenaren garapenarekin orekatua edukitzeak duen garrantzia ezagutuko dute. Pertsona ororen bizitzan arrakasta lortzeko faktore nagusia dela azpimarratuko zaie.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>
<p>J7 Oinarrizko gizarte-trebetasunei buruzko azalpena. Entzute aktiboa eta enpatia.</p> <p>J7.1-E5 Telefono hondatuaren praktika.</p> <p>J7.2-E6 “Laburbiltzeko” gizarte-trebetasunaren giltza-esaldiekin praktika egitea, beste pertsona bati entzute aktiboa adierazteko.</p> <p>J7.3-E7 Hainbat arazo txartel txikitik idatzi eta horiek irudikatuz enpatia agertzeko praktika.</p>	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12	1,5 h.	X	X	<p>Ikasleek entzute aktiboaren eta enpatiaren gizarte-trebetasunak menperatzeak dagokien tutoretza-ekintza garatzeko duen garrantzia ulertuko dute.</p> <p>Bestalde, euren ikasleentzako komunikazio-eredu bihurtzen direla ulertuko dute ikasleek.</p>	<p>Gizarte-trebetasunak ondo eta eraginkortasunez erabiltzen direnean pertsona sinesgarri eta konfiantzazko eta gure ikasleentzako eredu aktibo bihurtzen garelako ulertuko dute ikasleek.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>



<p>J8 Emozioak, sentimenduak eta iritziak adierazteko gehien erabiltzen den gizarte-trebetasunari buruzko azalpena: mezua-ni.</p> <p>J8.1-E8 Praktika: ikasleak talde txikitan jarri eta kasu desberdinak ebatziko dituzte; ikasleek mezua-ni giltza-hitzak erabili beharko dituzte.</p> <p>J8.2-E9 Simulazio-praktika: eguneroko bizitzako eta lan-bizitzako egoera desberdinetan mezua – ni gizarte-trebetasuna erabili beharko dute.</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, mezua-ni erabiltzea egokia eta eraginkorra gertatzen den egoerei buruz.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Ikasleengan emozioak, sentimenduak, iritziak, eskubideen defentsa, eta abar komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak sustatu nahi dira, betiere besteenganako errespetua eta enpatia agertzeak duen garrantzia azpimarratuz.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>
<p>J9 Helburu bat lortzea ahalbidetzen duten gizarte-trebetasunei buruzko azalpena: laino-gunea, akordio partziala, erabateko akordioa, disko akastuna, mezuari jaramonik ez egitea eta ispiluan islatzea.</p> <p>J9.1-E10 Praktika: ikasleak talde txikitan jarri eta kasu desberdinak ebatziko dituzte; ikasleek lehen aipaturako trebetasunei dagozkien giltza-hitzak erabili beharko dituzte.</p> <p>J9.2-E11 Eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinak konpontzeko praktika: lehen aipaturako gizarte-trebetasunak erabiltzeko rol-playing-a</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, beste inor kaltetu gabe helburuak lortzea ahalbidetzen duten trebetasunak eraginkor diren egoerei buruz.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Ikasleengan emozioak, sentimenduak, iritziak, eskubideen defentsa, eta abar komunikatzeko eta adierazteko gaitasunak sustatu nahi dira, betiere adierazitakoa baloratzen ez denean edo biraok jasotzen direnean jarrera sendoa agertzeko beharra azpimarratuz.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>

<p>J10-E12 Elkarrizketa-trebetasunei buruzko azalpena.</p> <p>J10.1-E13 Rol-playing-a: ikasleek elkarrizketa bat hasten, jarraitzen eta amaitzen ikasiko dute, gizarte-trebetasun egokiak erabilita.</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, elkarrizketa-trebetasunak beharrezko bihurtzen diren egoerei buruz. Izan ere, trebetasun horiei esker lortzen da pertsonen artean erlazio ahalik eta positiboena edukitzea.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Ikasleek euren ikasleekin zein familiekin elkarrizketak edukitzeko gaitasuna bereganatzea lortu nahi da. Batzuetan ez dute laguntzeko gogorik izango eta beste batzuetan gehiegizkoa.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>
<p>J11 Galderak egiteko arteari buruzko azalpena (galdera irekiak, itxiak eta zailak)</p> <p>J11.1-E14 Rol-playing-a: gurasoekin tutoretza-ekintza bat antolatzea:</p> <p>Tutorearekin informazioa partekatzeke uzkur dauden gurasoekin. Tutoreari informazio esplizituegia ematen dioten gurasoekin. Gatazkarako joera duten eta hausnartzeko beharra duten gurasoekin.</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, elkarrizketazko eta entzute aktiboko testuinguru batean galderak egiteko arteari buruz.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Haurren eta bere familiaren entzute aktiboa erraztuko duten galderak egiten ikasiko dute ikasleek, lehenago ikasitako trebetasunak baliatuz.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>



<p>J12 Kritikak egiteko eta jasotzeko moduari buruzko azalpena.</p> <p>J12.1-E15 Eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako rol-playing-a. Kritika bat egin eta onartu ala ez simulatuko dute ikasleek; kasu batean edukia eta kritika egiteko modua egokiak izango dira eta beste kasu batean ez.</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, kritikak egiteko eta jasotzeko moduari buruz. Garbi utziko du kritikak gure bizitza pertsonalean zein profesionalean hobetzen laguntzen diguten gizarte-trebetasunak direla.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Kritika konstruktiboak hobera egiteko baliatzeko gaitasuna indartu nahi da ikasleengan.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>
<p>J13 "Esker-sarien" bitartez egoerak suspertzeko gizarte-trebetasunari buruzko azalpena.</p> <p>J13.1-E16 Ikasleen praktika: txartelak prestatu eta ikaskide bakoitzaren alderdi positiboak idazteko eskatuko zaie ikasleei. idatzi ondoren, ikasle bakoitzari dagokion txartela emango zaio. Gelako ikasle guztiek edukiko dute dagokien txartela.</p> <p>J13.2-E17 Ikasleen praktika: ikasleek laztanak egingo dizkiete elkarri; ikasleen autoestimua sustatu nahi da eta gelan elkarbizitzarako giro egokia lortu.</p>	<p>1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, esker-sariak erabiltzea egokia eta eraginkorra gertatzen den egoerei buruz.</p> <p>Azalpena eman ondoren, ikasleak eguneroko bizitzako eta lanbide-bizitzako egoera desberdinetan erabiliko du.</p> <p>Jarraian, irakasleak ebaluazio-orri bana emango die ikasleei. Rol-playing-a egitean kontuan hartu behar diren komunikazio-alderdiak adieraziko ditu bertan, eta ikasle bakoitzaren hobekuntza ezagutzeko eta ebaluatzeko balioko du.</p>	<p>Ikasleen behatzeko gaitasuna garatzea lortu nahi da, eta dagozkien ikasleek erakutsitako edozein ahalegin, jarrera edo jokabide positibo saritzeko gai izatea lortu nahi da. Ikasleei garbi utziko zaie garrantzitsua dela horrelako egoerak sarriago ikustea. (frecuencia de qué?)</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>

J13.3-E18 Maitasungrama bat egitea. Ikasleek gelan erabiliko dute, gizarte-trebetasunak ondo erabiltzeagatik alderdi positiboak azpimarratzeko eta jasotzeko.				X			
J14-E19 Dagokien lanbidearen eta antzekoen kode deontologikoa lantzea.	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 13	2 h.	X	X	Ikasleek dagokien lanbidearen kode deontologikoa landuko dute. Antzeko lanbideetako informazioa bilatzeko eskatuko zaie.	Ikasleek lanbide-profila ezagutzea eta hori betetzeko erantzukizuna handia dela ulertzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J15-E20 Talde-lana: 0-6 urte arteko haurren artean oinarritzko gizarte-trebetasunak lantzen ikasteko jarduerak/tresnak prestatzea: - 2 jolas - 2 ipuin - 2 irteera - 2 festa J15.1-E21 Ikasleen praktika autonomoa: aurreko jardueran proposatutako lau jardueretatik bat azaltzea eta garatzea, betiere haur-hezkuntzako profesional gisa ikasleari dagokion profila kontuan hartuta.	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	3 h.		X	Ikasleek, euren prestakuntza osatzeko, haurren eboluzio-unea kontuan hartu eta gizarte-trebetasunak ondo garatzeko tresnak landuko dituzte. Besteak beste, jokoak, ipuinak, festak, eta abar egingo dituzte.	Ikasleek haurren eboluzio-unea kontuan hartu eta gizarte-trebetasunak ikasteko egokiak diren jarduerak eta materialak landuko dituzte.	Ikasgelaren berezko baliabideak.
J16-E22 Praktika autonomoa: profesionalarentzako informazio-tresnak prestatzea.	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.		X	Ikasleek hainbat informazio-tresna landuko dituzte, gizarte-trebetasunak hartzeko prozesuaren ebaluazioan lortutako informazioa familiei ezagutzera emateko.	Familiei gizarte-trebetasunak hartzeko prozesuaren ebaluazioari buruzko informazioa emateko tresnak lantzen dira.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J17-E23 Talde-lana: ikasleen hasierako ebaluazioa egiteko beharrezkoak diren datuak jasotzea.	1, 2, 4, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.		X	Ikasleak taldeka antolatuko dira eta haur-talde bat behatu beharko dute. Gizarte-trebetasunak hartzeko duten heldutasuna ebaluatzeko	Jokabide-aldaketako programa batean egindako esku-hartzearen prozesua eta emaitza ebaluatzen dira, eta erabilitako estrategien eta tresnen hautaketa	Testu-liburua. Ordenagailuak. Inprimagailua. Ebaluazio-tresnak.

<p>J17.1-E24 Talde-lana: ebaluazio-tresnak aplikatzea.</p> <p>J17.2-E25 Talde-lana: jasotako informazioa egoki interpretatzea.</p>				<p>X</p> <p>X</p>	<p>beharrezkoak diren datuak jasotzeko eskatuko zaie.</p> <p>Xede horrekin, gelan erabil daitezkeen gizarte-trebetasun desberdinak neurtuko dituzten ebaluazio-tresnak erabiliko dituzte, eta trebetasunak ondo ikasteko urratsak jarraituko dituzte beti.</p> <p>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du.</p>	<p>justifikatzeko balio du.</p> <p>Informazioa ondo interpretatzen ikasten da.</p> <p>Hobetu daitezkeen alderdiak identifikatu eta zuzentzen ikasten duten ikasleek.</p>	
<p>J18-E26 Ikasleen praktika autonomoa: 0-6 urteko etapako gizarte-trebetasunei eta horien ezarpen egokia errazten duten tresnei buruzko material teorikoarekin txosten bat idaztea.</p>	<p>Guztiak</p>	<p>2 h.</p>		<p>X</p>	<p>Ikasle bakoitzak unitate didaktikoan landutako eduki teoriko garrantzitsuenak txosten/fitxategi batean jasoko ditu.</p> <p>Txosten horrekin batera, ikasleek jasotako prestakuntzan egin dituzten rol-playing-etan osatutako ebaluazio-fitxak aurkeztuko dituzte.</p>	<p>Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute.</p>	<p>Testu-liburuak. Ordenagailu-gela. Internet Pendrive-ak/disketeak. Inprimagailua.</p>
<p>E27 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebatzea.</p>		<p>1 h.</p>		<p>X</p>	<p>Ikasleek gaien landutako kontzeptu garrantzitsuenei buruzko galdera-sorta bat erantzun beharko dute.</p> <p>Gainera, gizarte-trebetasunak modu egokian erabiliz, kasu desberdinak ebatziko dituzte.</p>	<p>Unitate didaktikoan bereganatu dituzten ezagupenak erakusteko balioko du.</p>	<p>Azterketa.</p>



OHARRAK

- Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko.
- Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, eta adierazle batzuk kontuan hartuta, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu.



2. unitate didaktikoa: LAN TALDEAK DINAMIZATZEA

Iraupena: 33 ordu

JE 1: Komunikazioa eta ingurunearekiko gizarte-harremana errazteko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu eta emozio- eta gizarte-adimenarekin erlazionatzen ditu.
JE 2: Taldearen lana dinamizatzen du, teknika egokiak erabiliz eta kasuan kasu taldeak dituen ezaugarri, egoera eta helburuen arabera egindako aukera justifikatuz.
JE 5: Haur-hezitzaileak dagokion lanbide-eginkizunak betetzeko duen gizarte-kompetentzia eta taldeak dinamizatzeke eta zuzentzeko gaitasuna ebaluatzen du, eta bizitza osoan baitako ikaskuntza aztertu eta hobetu daitezkeen alderdiak edo adierazleak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea, taldearen konfiantza lortzearen tolerantziarako eta enpatiazko jarrera agertzeak duen garrantzia baloratuz.
2. Pertsonalki komunikatzea, komunikazio enpatikoa eta asertiboa baliatuz.
3. Talde baten funtsezko elementuak eta taldearen egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak deskribatzea.
4. Taldeak dinamizatzeke eta horien funtzionamendua lortzeko teknikak aztertzea eta hautatzea.
5. Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen abantailak azaltzea.
6. Talde batean ager daitezkeen rolak eta horien arteko erlazioak bereiztea.
7. Talde-lanean banakako desberdintasunak errespetatzea, besteen iritziak eta taldeko akordioak errespetatuz.
8. Taldean komunikazioa oztokatzen duten elementu nagusiak identifikatzea.
9. Esku hartzeko estrategia desberdinak proposatzea, taldeko egituraren eta funtzionamenduan lidergoak eta rolerak betetzen duten funtzioak baliatzeko.
10. Eginkizunen banaketa definitzea talde-lana egiteko prozedura gisa; lanerako giro lasaia eta lankidetzazkoa lortuko da.
11. Talde baten egitura eta dinamika identifikatzea, teknika eta tresna egokiak erabiliz.
12. Gizarte-ikerketako eta ikerketa soziometrikoko teknikak erabiltzea eta ebaluazio-adierazleak hautatzea.
13. Profesionalak abiapuntutzat duen egoera pertsonala eta soziala autoebaluatzea eta prozesu hori dagokion lanbide-profilarekin erlazionatzea.
14. Informazioa jasotzeko tresnak diseinatzea eta datuak alde aurretik ezarritako euskarrietan erregistratzea eta interpretatzea.
15. Hobekuntza ahalbidetuko duten egoerak eta jarraibideak identifikatzea; profesionalak landutako prozesuaren azken autoebaluazioa egingo da.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Komunikazio enpatikoa eta asertiboa ezartzea. • Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea. • Taldeen egitura eta prozesuak aztertzea. • Taldeko egitura eta dinamika alda dezaketen faktoreak identifikatzea. • Taldeak dinamizatzeke teknika eta tresna egokiak erabiltzea. • Taldeak dinamizatzeke tekniken hautapena justifikatzea, taldearen ezaugarri, egoera eta helburuen arabera. 	X X	X X X X			



	<ul style="list-style-type: none"> Talde-lanak bakarkako lanarekiko dituen abantailak aztertzea. Esku hartzeko estrategia desberdinak erabiltzea, taldeko egituran eta funtzionamenduan lidergoak eta rol positiboek betetzen duten funtzioa baliatzeko eta rol negatiboak neutralizatu edo zuzentzeko. Lanerako giro lasaia eta lankidetzazkoa lortzea. Taldean konfiantza eta kohesioa lortzeko teknikak eta dinamikak erabiltzea. Taldeak aztertzeko estrategiak eta tresnak aztertzea. Taldeekin egiten den lanean teknika soziometrikoak eta gizarte-ikerketakoak erabiltzea. 		X X X X			X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Komunikazio-programak eta –teknikak eta gizarte-trebetasunak. Komunikazio-estiloak: estilo oldarkorra, inhibitua/pasiboa, asertiboa. Taldea: Motak eta ezaugarriak. Talde baten egitura eta dinamika. Talde-garapena. Komunikazioa taldeetan. Komunikazio-estiloak. Ahozko eta keinuen bidezko komunikazioa. Beste hainbat hizkuntza: ikonikoa, ikus-entzunezkoa, IKTak. Oztopoak eta eragozpenak. Taldeak aztertzeko teknikak. Taldeak dinamizatzeko teknikak. Lankidetzeta eta lehiakortasuna taldeetan. Talde-dinamikak. Oinarri psikosozilogikoak, talde-dinamiketara aplikatuta. Lan-ekipoa. Lankidetzazko lan-estrategiak. Eginkizunak antolatzea eta banatzea. Banakako lana eta talde-lana. Taldeko rolak: Rol positiboak eta negatiboak. Rol positiboak indartzeko eta negatiboak neutralizatu edo zuzentzeko jardun-estrategiak. Taldeko konfiantza eta kohesioa. Taldean egitura eta prozesuak aztertzea. 	X X	X X X X X X X X X			X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> Gizarte-trebetasunak lanbide-eginkizuna garatzen duten garrantzia baloratzea. Pertsonen arteko harremanetan eta komunikazio-harremanetan trebetasun egokiak garatzeko orduan, autokritikak eta autoebaluazioak duten garrantzia baloratzea. Komunikazioak taldearen garapenean duen garrantzia baloratzea. Taldeko dinamikak motibazioak betetzen duen eginkizuna baloratzea. Talde-lanean banakako desberdintasunak errespetatzea. Taldearen konfiantza lortzeko jarrera tolerantia eta enpatiazkoa azaltzeko duen garrantzia baloratzea. Taldeko ebaluazioa taldeak hobetzeko eta garatzeko estrategia gisa baloratzea. 	X X	X X X X			X

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.		0,5 h.	X		Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itzaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik egindako inkesta.
J1 Talde-lanari eta talde-lanak dituen abantaila eta desabantaila buruzko azalpena.	1, 2, 3, 5	0,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, talde-lanari buruz. Formula 1-eko boxetan egiten den talde-lanari buruzko hausnarketa egingo da, adibidez, eta talde-lanaren abantailak eta desabantailak azpimarratuko dira.	Ikasleek dagokien lanbide-eginkizuna garatzeko eta emaitza onak lortzeko taldean lan egiteak duen garrantzia ikusiko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J2-E1 Talde-lana: proiektu edo tresna txiki bat egitea. J2-E2 Aurreko lana amaitzean, sortutako proiektua edo tresna erakutsi eta taldean lan egiteak dituen abantailak azpimarratuko dira.	1, 2, 3, 5, 7, 10	2,5 h.	X	X	Ikasleak taldeka antolatu eta hainbat objektuk osatutako set bana banatuko zaie (talde guztiei berdina). Irakasleak jarraibideak eman eta ikasleek tresna bat sortu beharko dute. Talde bakoitzak objektu bat sortuko du, ahalik eta hobekien. Talde desberdinek egindako sorkuntzak erakutsi ondoren, lan-talde batek,	Pertsona batek baino gehiagok helburu bera lortzeko batera lan egiten dutenean, arazo berbera konpontzeko erantzun ugari daudela ulertuko dute ikasleek.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

					eginkizunak, abantailak eta desabantailak lantzean ematen dituen urratsak azalduko dira.		
					1UDan ikasitako gizarte-trebetasunak erabiliko dira, taldeari ondorioak jakinarazteko eta talde txikian lan egiteko.		
J3 Lan-talde batean ikus daitezkeen rol mota desberdinei buruzko azalpena.	1, 2, 6, 7, 9	0,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, talde batean ikus daitezkeen rolei edo portaera-ereduei buruz.	Ikasleek rol desberdinak eta berari dagozkionak ezagutuko dituzte eta taldearen funtzionamenduan duten eragin erabakigarria ulertuko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J4-E3 Irakasleak hainbat tresna/galdeketa banatuko ditu ikasleen artean, taldean dauden rol desberdinak lantzeko: bakezalea, berritsua, bromazalea, eta abar.	1, 2, 6, 7, 12, 13,	1 h.	X	X	Ikasleei egindako hainbat galderaren erantzunekin landutako tresna bat erabiliko du irakasleak, ikasleei talde batean egon daitezkeen rol desberdinak antzemateko aukerak erakusteko. Era berean, ikasleek euren lanbide-bizitzan ezagutu ditzaketen lan-talde desberdinetan har ditzaketen rolak ezagutuko dituzte.	Ikasleek rol desberdinak eta taldearen funtzionamenduan duten eragin erabakigarria ikusiko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J5 Talde baten eboluzioari buruzko azalpena.	3, 4, 5, 7, 8, 10	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, talde baten bizi-zikloari buruz.	Ikasleek talde batek ezagutzen dituen fase guztiak ezagutu eta ulertuko ditu eta, horrela, taldeak bizi duen fasea kontuan hartuta esku-hartze egokia egiten ikasiko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J6 Talde bat dinamizatzeko moduari buruzko azalpena.	1, 2, 4, 7, 8	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, helburu bat lortzearen talde bat dinamizatzeko moduari buruz.	Ikasleek talde-lanean eraginkortasunez jarduteko tresnak eta baliabideak ezagutuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

J6.1-E4 Lankidetzako lanaren esparruko hezkuntza-espezialista baten hitzaldia.				X	Espezialistak lankidetzako lanaren abantaila eta desabantaila buruzko hitzaldia emango du eta ikasleek hitzaldian entzundakoaren inguruan hausnartuko dute.		
J7-E5 Ikasleen praktika autonomia: esku-liburu edo fitxategi bat lantzea, talde handirako, ertainerako eta txikirako talde-dinamiken teknikak jasotzeko. J7.1-E6 Talde-lana: Ikasle bakoitzak lehen bilatutako teknikak jendaurrean azalduko ditu eta fitxategi berri bat osatuko du taldeko kide guztiek egindako lanarekin. J7.2-E7 Talde bakoitzak hiru teknika desberdin antzetzuko ditu gelan.	4, 9, 10, 11, 12	6 h.	X		Irakasleak talde-dinamiken teknikei buruzko fitxategi bat emango die ikasleei, beraiek egin beharreko lana errazteko. Iturri berrietara jotzea baloratuko da. X Ikasleak taldeka jarri eta ikusitako teknikekin fitxategi bat osatuko dute, haurraren eboluzio-unea kontuan hartuta. X Talde bakoitzak hiru teknika prestatuko ditu, gelan erakusteko.	Ikasleek talde-dinamikaren teknika guztiak ezagutu eta, lortu nahi den helburuaren arabera, teknika egokia aukeratzeko ikasiko dute, betiere ikasleen adina, iraupena, materialak, eta abar bezalako alderdiak kontuan hartuko direlarik.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J8-E8 Irakasleak dituen "subkulturei" buruzko azalpena (indibidualismoa, berezko lankidetzak, balkanizazioa, eta abar); subkultura horiek ikastetxeo kulturarekin erlazio estua dute eta ikastetxeo dinamika ulertzeko balio dute.		1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, irakasleek, ikasleentzako lan-eredu bihurtzeko, erakutsi beharreko lankidetzako jarrera sustatzeak eta mantentzeak duen garrantziari buruz.	Ikasleek irakasleek dituzten aurretiazko jarrerak ikastetxearen hezkuntza-proiektuak aurrera eramateko duten garrantzia ezagutuko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J9-E9 Tutoreak talde-lanean betetzen duen rolari eta autoebaluazioak gogoetarako tresna gisa betetzen duen funtzioari buruzko azalpena.	2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18	1 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, ikaskuntzaren oinarria arazoak konpontzea denean tutoreari dagozkion eginkizunei buruz.	Ikasleek lan-taldearen baitako parte-hartzea, antolamendua, adostasuna eta komunikazioa bezalako alderdien inguruan gogoeta sakona egitea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

<p>J10-E10 Ikerketa-lana tutoretzari buruz eta tutore-ekintza on baten eta txar baten adierazleak bilatzea.</p> <p>J10.1-E11 Ondoren, power-point bat baliatuta l10 jardueran egindako ikerketa erakutsiko dute gela osoaren aurrean.</p> <p>J10.2-E12 Tutoretza baten simulazioa: familiekin osatutako lan-taldea.</p>	2, 4, 9,10, 11,14,16, 17,18	4 h.		X	Ikasleek Haur Hezkuntzako tutoretza mota desberdinei buruzko ikerketa egingo dute; gelako haurrak xede dituen tutoretza-ekintza eta familiak xede dituen ezagutuko dituzte.	Tutoretza-ekintzak garatzeko modu desberdinak bilatu, hautatu eta erkatzeko, eta horiek baliatuz lor daitezkeen etekinak ezagutzeko balioko die ikasleei.	Testu-liburuak. Ikasgelaren berezko baliabideak. Ordenagailu-gela. Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J11 Taldeko jarduera sustatzeko estrategiei buruzko azalpena.</p> <p>J11.1-E13 Taldeko ikerketa-lana, talde-lanaren eraginkortasuna laguntzen duten ekintzei buruz.</p> <p>J11.2-E14 Horma-irudi bat egitea ekintza edo proposamen guztiekin, eta gelaren aurrean erakustea.</p>	2, 4, 5, 14	3 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, talde-lanaren eraginkortasuna laguntzen duten ekintzei buruz.	Ikasleengan komunikatzeko gaitasuna eta besteenganako errespetua eta enpatia erakusteko jarrera sustatzeko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
<p>J12 Liderraren figurari buruzko azalpena: definizioa eta ezaugarriak.</p> <p>J12.1-E15 Taldeko hausnarketa: philips 6/6 teknikaren bitartez lider izatearen abantailak eta desabantailak ikustea.</p>	2, 4, 9,10, 11,14,16, 17,18	1,5 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, lidergoari buruz; lidergoaren definizioa eta ezaugarriak azalduko ditu.	Ikasleek lider izateko dituzten ezaugarriak ezagutuko dituzte eta gutxien garatutakoak indartu ahal izango dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.



<p>J13 Lider motei eta lider eraginkorren ezaugarri buruzko azalpena.</p> <p>J13.1-E16 Ikerketa-lana liderren jarrerei buruz; liderrak motibatuzko erabiltzen dituen jarrerei buruz hitz egingo da taldean ondoren.</p>	<p>2,4,7,9,10,11,14,16,17,18</p>	<p>1,5 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Irakasleak klase magistrala emango du, lider mota desberdinei eta dagozkien ezaugarri buruz.</p> <p>X Ikasleak, euren prestakuntza osatzeko, lider batek erakutsi beharreko jarrerak ezagutzen saiatuko dira, eta dagokion lana ondo burutzeko jarrera positiboak eta baikorrak edukitzeak duen garrantzia azpimarratuko zaie.</p>	<p>Ikasleek etorkizunean Haur Hezkuntzako gelan zein talde-lanean lider eraginkorra izateko landu beharreko alderdiak ezagutzeko balio du.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.</p>
<p>J14-E17 Lan autonomoa: Ikasle bakoitzak lantegi baten programazioa osatuko du (jarduera zehatzak, ipuinak eta/edo irteerak, eta abar), gainerako ikaskideekin gelan egiteko.</p> <p>Ikasle guztiak lider izango dira banaka, eta ikasitako guztia baliatuko dute.</p> <ol style="list-style-type: none"> 1. Talde bat osatzea 2. Rolak definitzea. 3. Teknika hautatzea 4. Jarrerak 5. Tutorearen eginkizunak 6. Lan-taldearen eraginkortasuna errazteko estrategien plangintza. 	<p>2, 4, 9, 10, 11, 14, 16, 17, 18</p>	<p>4 h.</p>	<p>X</p>	<p>X</p>	<p>Ikasleak profesional bat dela antzetzuko du. Bere irudi pertsonala zaindu beharko du eta gidoi bat landu. Gidoi horretan hainbat jarduera barne hartuko ditu, lider eraginkorra izateko duen gaitasuna erakusteko.</p> <p>Ikasleak profesional bat dela antzetzuko du. Bere irudi pertsonala zaindu beharko du eta gidoi bat landu. Gidoi horretan hainbat jarduera barne hartuko ditu, lider eraginkorra izateko duen gaitasuna erakusteko. Jarduera hau grabatzeko aukera egin daiteke eta, ondoren, grabaketa ikusi, gogoeta egin eta etorkizunean lider izateko egin beharreko hobekuntzak ezagutuko dituzte ikasleak.</p>	<p>Ikasleengan lider izateko duen gaitasuna indartzea bilatzen da, bai eta ebaluazioa eta autoebaluazioa egin eta hobetu beharreko alderdiak ezagutzea ere.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak. Bideo-kamera edo filmatzeko kamera.</p>



J15-E18 Ikasleen praktika autonomoa: talde-lanen dinamizazioari buruzko material teoriko-praktikoarekin txosten bat lantzea.	Todos	2 h.		X	Ikasle bakoitzak txosten bat landuko du unitate didaktikoan ikusitako eduki teoriko garrantzitsuenekin Etorkizunean profesional gisa jarduteko egin beharreko hobekuntzekiko konpromisoa adieraziko dute bertan.	Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute.	Testu-liburuak. Ordenagailu-gela. Internet. Pendrive-ak/disketeak. Inprimagailua.
E19 Berriazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat eta kasu praktiko bat ebatzea.		1 h.		X	Ikasleek gaien landutako kontzeptu garrantzitsuenei buruzko galdera-sorta bat erantzun beharko dute.	Unitate didaktikoan bereganatu dituzten ezagupenak erakusteko balioko du.	Azterketa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko. Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, eta adierazle batzuk kontuan hartuta, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. 							

3. unitate didaktikoa: BILERAK ZUZENTZEA

Iraupena: 32 ordu

JE 1: Komunikazioa eta ingurunearekiko gizarte-harremana errazteko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu eta emozio- eta gizarte-adimenarekin erlazionatzen ditu.

JE 3: Bilerak zuzentzen ditu, eta bileraren hartzaileen ezaugarrien eta testuinguruaren arabera, esku hartzeko eta antolatzeko modu edo estilo desberdinak aztertzen ditu.

JE 5: Haur-hezitzaileak dagozkion lanbide-eginkizunak betetzeko duen gizarte-kompetentzia eta taldeak dinamizatzeko eta zuzentzeko gaitasuna ebaluatzen du, eta bizitza osoan baitako ikaskuntza aztertu eta hobetu daitezkeen alderdiak edo adierazleak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea.
2. Pertsonalki komunikatzea, komunikazio enpatikoa eta asertiboa baliatuz.
3. Bilera-mota desberdinak eta bileren funtzio desberdinak deskribatzea.
4. Bilera baten garapenaren etapak deskribatzea.
5. Bilerak moderatzeko teknikak aplikatzea eta horiek justifikatzea.
6. Ideiak garbi eta zehatz adierazteko gaitasuna edukitzeak duen garrantzia erakustea.
7. Arrisku-faktoreak, bilera batek eduki ditzakeen sabotajeak, deskribatzea, eta horiek konpontzeko estrategiak justifikatzea.
8. Bileren deialdietan ematen den informazioa ona eta anitza izateko beharra baloratzea.
9. Jendeak bileretan parte har dezan lortzeko motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantzia deskribatzea.
10. Bilera batean informazioa jasotzeko eta emaitzen ebaluazioa egiteko teknikak erabiltzea.
11. Bilerak zuzentzean errespetua eta tolerantzia erakustea.
12. Ebaluazio-adierazleak hautatzea.
13. Informazioa jasotzeko tresnak diseinatzea eta datuak aldez aurretik ezarritako euskarrietan erregistratzea eta interpretatzea.
14. Profesionalak abiapuntutzat duen egoera pertsonala eta soziala autoebaluatzea, hobetu beharreko egoerak identifikatuz eta hobekuntza lortzeko jarraibideak zehaztuz.
15. Profesionalak landutako prozesuaren azken autoebaluzioa egitea eta prozesu hori dagozkion lanbide-profilarekin erlazionatzea.



EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera bateko partaideen tipologia identifikatzea. • Bileretako parte-hartzaileak eta testuingurua kontuan hartu eta bilerak moderatzeko eta dinamizatzeko teknikak behar denean erabiltzea. • Bilera batean gatazkak konpontzeko estrategiak behar den bezala erabiltzea. • Bilera batean informazioa jasotzeko eta emaitzen ebaluazioa egiteko teknikak ondo erabiltzea. • Talde baten portaera eragiten duten faktoreak identifikatzea. • Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea. • Profesionalak abiapuntutzat duen egoera pertsonala eta soziala autoebaluatzea, hobetu beharreko egoerak identifikatuz. • Informazioa jasotzeko tresnak diseinatzea. 	X X		X X X X		X X
KONTZEPTUZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Bilera talde-lan gisa. • Bilera-motak eta eginkizunak. • Bilera baten garapenaren etapak. • Bilerak dinamizatzeko eta moderatzeko teknikak. • Arrisku-faktoreak bilera batean. Litezkeen gatazkak. Gatazkak konpontzeko estrategiak. • Bilera batean informazioa jasotzeko eta emaitzen ebaluazioa egiteko teknikak. • Informazioa jasotzeko tresnak. Tresnak diseinatzea. • Testuinguruaren balorazioa komunikazioaren ikuspegitik: komunikazioa errazten eta oztopatzen duten elementuak. 	X		X X X X X X		X
JARRERAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Ideiak garbi eta zehatz adierazteko gaitasuna edukitzeak duen garrantzia baloratzea. • Bileren deialdietan ematen den informazioa ona eta anitza izateko beharra baloratzea • Jendeak bileretan parte har dezan lortzeko motibazioak eta erabilitako estrategiek duten garrantziaz jabetzea. • Bilerak zuzentzean errespetua eta tolerantzia erakustea. • Autoebaluzioa gizarte-kompetentzia hobetzeko estrategia gisa baloratzea. • Gainontzekoak ez epaitzea eta pertsonen elementu bereizgarriekiko errespetuzko jarrera agertzea: emozioak, sentimenduak, nortasuna. • Gizarte-trebetasunek lanbide-eginkizuna garatzean duten garrantzia baloratzea. 	X X		X X X X	X	X

JARDUERA					METODOLOGIA		BALIABIDEAK
ZER egingo dudan edo duten Jarduera mota	Helburu inplikak.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den
			Ir.	Ik.			
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.		30 h.	X		Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Ikasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak egiteko.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik prestatutako inkesta.
J1 Bileren beharrei eta abantaileri eta horien erabilerei buruzko azalpena.	3	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, bilerak egiteko beharri buruz, eta dituzten abantailak aztertuko ditu.	Ikasleek bileren definizio desberdinak eta bilerak ondo antolatzean eta garatzean lortzen diren abantailak ezagutuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J2-E1 Ikasleen praktika autonomoa: Bilerak nola eta zertarako erabili aztertzea; hainbat dokumentu eta kasu aztertuko dira.	1, 2, 3	1 h.		X	Ikasleek bilerak nola eta zertarako erabili daitezkeen azalduko dute. Horretarako, hainbat dokumentu eta kasu aztertuko dituzte.	Ikasleek bilerak nola eta zertarako erabili daitezkeen ikasiko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J3 Bilerak motei buruzko azalpena; lortu nahi diren helburuak eta partaide kopurua. J3.1-E2 Ikasleen praktika autonomoa:	1, 2, 3, 6, 8	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, bilerak mota desberdinei buruz.	Ikasleek bilera mota guztiak ezagutuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko
				X	Ondoren, bileraren definizioak, mota		

bilera mota desberdinak eta bakoitzaren eginkizunak barne hartzen dituen eskema-laburpen bat egitea.					bakoitzaren abantailak eta desabantailak eta dagozkien eginkizun nagusiak kontuan hartu eta laburpen-taula bat egiteko eskatuko zaie ikasleei.		baliabideak.
J4 Moderatzailearen eginkizunei buruzko azalpena. J4.1-E3 Ikasleen praktika autonomoa: moderatzailearen eginkizun bakoitza antzetzeko roll-playing bat antolatzea: gauzak argitzea, kontrola, erlaxazioa, dinamizazioa, eta abar.	1, 2, 3, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, moderatzaileari dagozkion eginkizunei buruz. Ondoren, ikasleek laneko bilera bat irudikatuko dute eta moderatzaileari dagozkion eginkizunak bete. X Jarduera hau grabatzea komeni da, hartara, ondoren ikasleei erakutsi eta bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko, hobetu beharreko alderdiei buruzko datuak lortzeko, bai eta ebaluazio-tresnak lantzeko ere.	Ikasleek moderatzaile eraginkorra izaten ikasiko dute eta dagozkion eginkizunak ezagutuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J5 Bilera baten garapenaren etapei buruzko azalpena. J5.1-E4 Ikasleen praktika autonomoa: bilera baten prestakuntza irudikatzen duen roll-playing bat prestatzea: prestaketa-fasea, hasiera, garapena, amaiera, akordioen jarraipena, erabakiak eta eginkizunak, eta abar.	1, 2, 4, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	3 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, bilera baten etapei buruz. Jarraian, ikasleek bilera baten simulazioa egingo dute: prestaketa, dokumentuak... bilera amaitu arte, eta akordio, erabaki eta eginkizunen jarraipena egingo dute. X Jarduera hau grabatzea komeni da, hartara, ondoren ikasleei erakutsi eta bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko, hobetu beharreko alderdiei buruzko datuak lortzeko, bai eta ebaluazio-tresnak lantzeko ere.	Ikasleek bilera baten etapak ezagutzeko balio du.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J6 Bilerak moderatzeko teknikei buruzko azalpena. J6.1-E5 Ikasleen praktika autonomoa:	1, 2, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, bilerak moderatzeko teknikei buruz. Ondoren, ikasleek bilera bat antzetzuko dute eta bilerak moderatzeko teknika guztiak erabiliko dituzte. X	Ikasleek bilera bat moderatzeko teknika guztiak ezagutu, identifikatu eta erabiltzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

ikasleek bilera bat irudikatuko dute eta bilera dinamizatzeko teknikak erabiliko dituzte.					Jarduera hau grabatzea komeni da, hartara, ondoren ikasleei erakutsi eta bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko, hobetu beharreko alderdiei buruzko datuak lortzeko, bai eta ebaluazio-tresnak lantzeko ere.		
J7 Bilera bateko partaide mota desberdinei buruzko azalpena. J7.1-E6 Ikasleen praktika autonomoa: ikasleek bilera bateko partaide mota guztiak irudikatuko dituzte eta moderatzaileak direla irudikatuko dute, txandaka, eta bilera moderatzeko beharrezkoak dituzten trebetasunak baliatuko dituzte.	1, 2, 5, 6, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, bilera bateko partaide mota desberdinei buruz. Ondoren, ikasleek bilera baten simulazioa egingo dute eta bilera bateko partaide mota desberdinen rolak irudikatuko dituzte. Ikasle bakoitzak bilera moderatu beharko du eta lana behar den bezala egiteko beharrezkoak dituen komunikazio-trebetasunak erabili beharko ditu.	Ikasleek bilera bateko partaide mota desberdinak identifikatzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J8 Talde baten portaera eragiten duten faktoreei buruzko azalpena: Boikoteatzaileak eta lankideak. J8.1-E7 Ikasleen praktika autonomoa: ikasleek bilera baten simulazioa egingo dute, eta lortu nahi diren helburu, arau eta balioen arabera, ikasleek portaera desberdinak irudikatuko dituzte.	1, 2, 3, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, talde baten portaera eragiten duten faktoreei buruz. Ondoren, ikasleek bilera bateko lankideen eta/edo boikoteatzaileen rola beteko dute, eta horrela jokatzearan lortzen duten etekina erakutsiko dute. Ikasleak moderatzaile izango dira txandaka eta bilera moderatzeko beharrezkoak dituzten komunikazio-trebetasunak erakutsi beharko dituzte. Jarduera hau grabatzea komeni da, hartara, ondoren ikasleei erakutsi eta bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko, hobetu beharreko alderdiei buruzko datuak lortzeko, bai eta ebaluazio-tresnak lantzeko ere.	Ikasleek talde baten portaera eragiten duten faktore desberdinak identifikatzea eta ulertzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

J9-E8 Ikasleen praktika autonomoa: Ikasle bakoitzak haur-eskola bateko "guraso-eskolarako" prestakuntza-bilera baten deialdiaren simulazioa egingo du. Bilerak kudeatzeko ikasitako teknikak eta haur-hezitzaile batek komunikatzeko dituen trebetasunak erabiliko dira.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	3 h.	X	X	Ikasleek prestakuntza-gaiarekin erlazionatuta dagoen prestakuntza-bilera bat deituko dute, ustezko guraso-eskola baterako. Bileraren deialdia, beharrezkoak diren baliabideak, gai-zerrenda, dokumentuak prestatzea, garapena, eginkizunen jarraipena, akordioak, hurrengo deialdia, eta abar.	Ikasleengan komunikatzeko gaitasunak, besteenganako errespetuzko eta enpatiazko jarrerak eta behaketa sustatu nahi dira. Bilera baten moderatzaile izateko dituzten kompetentziak azaleratuko dituzte.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J10-E9 Ikasleen praktika autonomoa: Ikasle bakoitzak dagokion etapako irakasle-klaustroaren bilera baten simulazioa egingo du. Bilerak kudeatzeko ikasitako teknikak eta haur-hezitzaile batek komunikatzeko dituen trebetasunak erabiliko dira.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	3 h.	X	X	Ikasleak gaia aukeratu eta irakasle-klaustroaren lan-bilera bat prestatu eta irudikatuko du. Bileraren deialdia lankideentzat, beharrezkoak diren baliabideak, gai-zerrenda, dokumentuak prestatzea, garapena, eginkizunen jarraipena, akordioak, hurrengo deialdia, eta abar.	Ikasleengan komunikatzeko gaitasunak, besteenganako errespetuzko eta enpatiazko jarrerak eta behaketa sustatu nahi dira. Bilera baten moderatzailea izateko dituzten kompetentziak azaleratuko dituzte.	Testu-liburuak. Ikasgelaren berezko baliabideak. Ordenagailu-gela.
J11 Bilerak garatzeko denboraren eta estresaren kudeaketako espezialista baten hitzaldia. J11.1-E10 Txostengile espezialistak adierazitakoari buruzko gogoeta egitea.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X		Espezialistak bileren denboraren kudeaketa egokiari buruzko hitzaldia emango du. Helburua da bilerak antolatzeko beharrezkoa den denborak eta lanak eragiten duten estresa eta lan-pilaketa ekiditea. Ondoren, ikasle bakoitzak gogoeta egingo du eta hobetu behar dituen alderdiak ezagutuko ditu, behin dituen akatsak edo ohiko gaizki eginak antzeman eta gero.	Ikasleengan behatzeko gaitasunak sustatu nahi dira, eta ikasleek moderatzaile eraginkorra izateko kompetentzia berriak ezagutzea lortu nahi da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.
J12-E11 Taldeko praktika: Ikasleak taldeka jarri eta power-point bat prestatuko dute, bilerak kudeatzeko eta dinamizatzeko moduei buruz.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.		X	Ikasleek orain arte landutako guztia ondo ulertzen lagunduko dien laburpen grafiko bat egingo dute.	Ikasleengan etorkizunera begira ideiak argi eta zehatz eta modu ulergarrian laburtu eta proposatzeko gaitasuna garatzea bilatzen da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria.

<p>J13 Talde-lana, "El método" filma aztertzea.</p> <p>J13.1-E12 Ikasleen praktika autonomoa: Bilera bateko partaideen tipologia desberdinei buruzko gogoeta eta azterketa egitea.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.	X	X	Ikasleek film bat ikusiko dute prestakuntza osatzeko. Film horretan partaide tipologia desberdinen eragina ikusiko dute, bai eta bileretako boikoteatzaileek eta lankideek duten eragina ere.	Ikasleek gelan ikasitako oinarri teorikoak indartuko dituzte.	Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>Ikasleak taldeka antolatu eta lehen egindako grabaketa erabiliko da, hainbat jardueretarako:</p> <p>J14-E13 Talde-lana: ebaluazioa egiteko datuak jasotzea.</p> <p>J14.1-E14 Talde-lana, ebaluazio-tresnak erabiltzea.</p> <p>J14.2-E15 Lan-taldeak: jasotako informazioa ondo interpretatzea.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 8, 9, 10, 11, 12, 14, 15	2 h.		<p>X</p> <p>X</p> <p>X</p>	<p>Ikasleak taldeka jarriko dira eta grabaketan gainerako ikaskideak behatzeko eskatuko zaie. Grabaketatik lortu beharko dituzte bilera baten kudeaketa egokia ebaluatzeko behar diren datuak.</p> <p>Bilera bateko osagaiak neurtzeko balio duten ebaluazio-tresnak erabili beharko dituzte.</p> <p>Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du.</p>	<p>Bileraren prozesua eta emaitza ebaluatzen da, eta erabilitako estrategia eta tresnen hautapena justifikatzen da. Informazioa ondo interpretatzen ikasten da.</p> <p>Ikasleek bilera batean sor daitezkeen arazoak identifikatzea eta konpontzea bilatzen da.</p>	<p>Testu-liburua.</p> <p>Ordenagailuak.</p> <p>Inprimagailua.</p> <p>Ebaluazio-tresnak.</p>

J15-E16 Ikasleen praktika autonomoa: haurren sexualitatea garatzen laguntzen duten hezkuntzako esku-hartzeen programazioari buruzko txosten bat lantzea.	Todos	1,5 h.		X	Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka.	Informazioa iturri desberdinetan bilatzen eta informazio egokia aukeratzen eta alderatzen ikasiko dute ikasleek. Halaber, gai jakin baten inguruko alderdirik azpimarragarrienak kontsultatzeko balioko dien idatzizko agiri bat osatzen ikasiko dute.	Testu-liburuak. Ordenagailu-gela. Internet. Pendrive-ak. Inprimagailua.
E17 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea.		1 h.		X	Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka.	Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balioko du.	Azterketa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko. Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, eta adierazle batzuk kontuan hartuta, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. 							



4. unitate didaktikoa: GATAZKAK KUDEATZEA ETA ERABAKIAK HARTZEA Iraupena: 33 ordu

JE 1: Komunikazioa eta ingurunearekiko gizarte-harremana errazteko estrategiak eta teknikak erabiltzen ditu eta emozio- eta gizarte-adimenarekin erlazionatzen ditu.
JE 4: Gatazkak kudeatzeko eta arazoak konpontzeko estrategiak erabiltzen ditu, eta testuinguruaren arabera hautatu eta eredu desberdinak aztertzen ditu.
JE 5: Haur-hezitzaileak dagokion lanbide-eginkizunak betetzeko duen gizarte-kompetentzia eta taldeak dinamizatzeko eta zuzentzeko gaitasuna ebaluatzen du, eta bizitza osoan baitako ikaskuntza aztertu eta hobetu daitezkeen alderdiak edo adierazleak identifikatzen ditu.

Ikaskuntzaren helburuak:

1. Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea.
2. Pertsonalki komunikatzea, komunikazio enpatikoa eta asertiboa baliatuz.
3. Taldeetako arazo eta gatazken iturri nagusiak aztertzea eta identifikatzea.
4. Gatazkak kudeatzeko teknika eta estrategia nagusiak deskribatzea.
5. Arazoetarako konponbideak bilatzeko estrategia egokienak identifikatzea eta deskribatzea.
6. Erabakiak hartzeko prozesuaren fase desberdinak deskribatzea.
7. Arazoak eta gatazkak konpontzea, kasu bakoitzean prozedurarik egokienak erabiliz.
8. Arazo eta gatazken konponbideak bilatzeko besteen iritziak errespetatzea.
9. Bitartekari izateko eta negoziatzeko teknikak ondo erabiltzea.
10. Erabakiak hartzeko orduan pertsonak (erabiltzaileak) kontuan hartzea, adina edo ezaugarri fisikoak eta mentalak edozein izanik.
11. Erabakiak hartzeko lana eta prozesuaren autoebaluazioa antolatzea.
12. Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia baloratzea.
13. Profesionalak abiapuntutzat duen egoera pertsonala eta soziala autoebaluatzea, hobetu beharreko egoerak identifikatuz eta hobekuntza lortzeko jarraibideak zehaztuz.
14. Informazioa jasotzeko tresnak diseinatzea eta datuak alde zuzenetik ezarritako euskarrietan erregistratzea eta interpretatzea.
15. Profesionalak landutako prozesuaren azken autoebaluazioa egitea eta prozesu hori dagokion lanbide-profesionalarekin erlazionatzea.

EDUKIAK		Multzoak				
		1	2	3	4	5
PROZEDURAZKOAK	<ul style="list-style-type: none"> • Taldeko gatazkak konpontzeko teknika eta estrategia egokiak erabiltzea. • Bitartekari izateko eta negoziatzeko teknikak ondo erabiltzea. • Erabakiak hartzeko lana eta prozesuaren autoebaluazioa antolatzea. • Egoera bakoitzean egokiak diren gizarte-trebetasunak erabiltzea. • Lortutako emaitzen arabera, hobekuntza-jarraibide egokiak ezartzea. 	X			X X X	X



KONTZEPTUZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Gatazka. Kontzeptua, ezaugarriak eta tipologia. Taldeko arazoak eta gatazkak. Gatazka-iturri nagusiak. Gatazkak konpontzeko teknikak eta estrategiak. Erabakiak hartzeko prozesua. Faseak. Prozesuaren plangintza eta ebaluazioa. Taldeko gatazkak kudeatzea. Negoiazioa eta bitartekaritza. Negoiazio- eta bitartekaritza-teknikak. Haur Hezkuntzako teknikariaren eta antzeko beste profil batzuen printzipio deontologikoak. Oinarrizko soziometria eta datuak jasotzea. 			X			X X X X X X	X
JARRERAZKOAK		<ul style="list-style-type: none"> Gatazka elementu positibo gisa eta taldeko dinamikak garatzeko bideratzaile gisa baloratzea. Arazoak eta gatazkak konpontzeko errespetuak eta tolerantziak duten garrantzia baloratzea. Erabakiak hartzean komunikazio-trukeak duen garrantzia baloratzea. Aldaketaren aurrean jarrera irekia eta gertatzen denetik ikasteko jarrera irekia. Autoebaluazioa gizarte-konpetentzia hobetzeko estrategia gisa baloratzea. Konfidentzialtasuna datuen tratamenduan. 			X			X X X	X X
JARDUERA				METODOLOGIA				BALIABIDEAK	
ZER egingo duan edo duten Jarduera mota		Helburu inplikat.	D.	NORK		NOLA egingo den	ZERTARAKO egingo den	ZEREKIN egingo den	
				Ir.	Ik.				
J0 Unitate didaktikoaren aurkezpena. E0 Hasierako ebaluazioa.			30 min.	X		Irakasleak galderak egingo dizkie ikasleei ahoz; ideia-zaparrada antolatuko du unitatearen aurkezpen laburra egin aurretik; eta inkesta bat egingo du unitatea amaitzean.	Ikasleak motibatzea eta ikasleengan interesa piztea bilatzen da, dituzten itxaropenak ezagutzeko eta aurretiazko ezagupenak antzemateko. Irakasleek unitate didaktikoan ikasiko dutena eta eduki berriak gainerako unitate didaktikoetan ikasitakoekin nola erlazionatzen diren ezagutzea bilatzen da, horrela ikasleek moduluaren ikuspegi orokorra bereganatzeko eta ikaskuntza esanguratsuak	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Aldez aurretik prestatutako inkesta.	



						egiteko.	
<p>J1 Gatazkak gure bizitzako zati direla ulertzeak duen garrantziari buruzko azalpena.</p> <p>J1.1-E1 Ikasleek "arazoa ez da gatazka, baizik eta ematen diogun erantzuna" esaldiaren inguruan hausnartzea.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	1 h.	X		Irakasleak klase magistrala emango du, gatazka esatean zer ulertu behar den azaltzeko. Gatazkaren garrantziari eta bere aurrean agertu beharreko jarrerari buruz hausnartuko da.	Ikasleek gatazken izaera ezagutzea eta gizakiak berezkoak dituela ulertzea lortu nahi da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J2 Gatazka balio positibo gisa ulertzeko komenigarritasunari buruzko azalpena.</p> <p>J2.1-E2 Gatazken aurrean jarrera konstruktiboa edukitzea oso lagungarria dela hausnartzea.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	1 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, gatazka gure bizitzan elementu positibo gisa ikusi behar dela azaltzeko.	Ikasleek gatazken izaera ezagutuko dute eta gizakiak berezkoak dituela ulertuko dute, bai eta hobera egiteko eta gure burua ezagutzeko lagungarriak direla ere.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J3 Gatazka motei eta pertsona batek gatazken aurrean ager ditzakeen jarrerari buruzko azalpena.</p> <p>J3.1-E3 Ikasleak taldeka jarri eta bizitzan sortzen diren gatazka mota desberdinak eta horien aurrean erakusten diren jarrerak aurkeztuko zaizkie: negoziazioa, tratua, lehiaketa, saihestea, eta abar.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	1,5 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, gatazka mota desberdinei eta horien aurrean agertzen ditugun jarrerari buruz. Ikasleek, brainstorming teknika baliatuz, gatazka mota desberdinak proposatuko dituzte eta gehien ematen den erantzuna baloratuko dute eta erantzun konstruktiboena eta gizatiartzaileena azpimarratuko dute.	Gatazka baten atzean bizitzaren aurrean hartzen den jarrera bat eta komunikazio-estilo bat dagoela ulertuko dute ikasleek.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J4-E4 Rol-playing bat egitea: eguneroko bizitzako (J3.1) egoera desberdinak irudikatuko dira eta ikasleek gatazka bat konpontzeko dituzten jarrerak/moduak baloratuko dituzte.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 13, 14, 15	1,5 h.		X	Ikasleek autoebaluazioa egingo dute, hezitzaile eraginkorra izatera bidean gatazkak konpontzeko orduan hobetzeko dituzten ezaugarriak ezagutzeko. Jarduera hau grabatzea komeni da, hartara, ondoren ikasleei erakutsi eta bakoitzak bere autoebaluazioa egiteko eta hobetu beharreko alderdiei buruzko datuak lortzeko.	Grabaketa ikusi ondoren, ikasleek autoebaluazioa egingo dute eta hobetu beharreko jarraibideak zehaztuko dituzte. Ikasleek bizitza pertsonaleko zein profesionaleko gatazkak nola konpondu daitezkeen ulertuko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

<p>J5 Gatazkak konpontzeko eman beharreko urratsei buruzko azalpena.</p> <p>J5.1-E5 Ikasleen ikerketa-lana, gatazkak konpontzeko metodo desberdinei buruz.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	2 h.	X	X	Irakasleak gatazkak konpontzeko eman beharreko urratsak azalduko ditu. Ondoren, ikasleek gatazkak konpontzeko metodo gehiago bilatu beharko dituzte egile desberdinen artean.	Ikasleek gatazkak konpontzeko urratsak menperatzea bilatzen da.	
<p>J6 Esku hartzeko beste proposamen batzuei buruzko azalpena: negoziazioa eta bitartekaritza.</p> <p>Taldeko gatazkak kudeatzea: arazoa konpontzeko etapa bakoitzean behar diren trebetasunak.</p> <p>J6.1-E6 Bitartekaritza formaleko prozesu baten simulazioa egitea eta dagozkion faseak irudikatzea.</p>	1, 2, 9, 13, 14, 15	1,5 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, negoziatioari eta bitartekaritza buruz. Ondoren, ikasleek bitartekaritza baten simulazioa egingo dute eta berau garatzeko beharrezkoak diren komunikazio-trebetasunak erabiliko dituzte.	Bizitza pertsonalean zein profesionalean erabili beharreko bitartekaritza-trebetasunak edo negoziatio-trebetasunak menperatu eta bereiziko dituzte ikasleek.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J7 Komunikazio asertiboak eta gatazkak konpontzeko prozesuan autokontrola edukitzeak duten garrantziari buruzko azalpena.</p> <p>J7.1 Eskola-bitartekaritza espezialista den pertsona baten hitzaldia.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	1,5 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, gatazkak konpontzeko autokontrolak duen garrantziari eta gure artean autokontrola lortzeko duen garrantziari buruz.	Haur Hezkuntzako gela bateko tutore gisa autokontrola lortzeko teknikak eta moduak menperatuko dituzte ikasleek.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
<p>J8 Arazoak konpontzeko teknikei buruzko azalpena.</p> <p>J8.1-E7 Ikasleen praktika autonomoa: rol-playing bat egingo da, arazoak konpontzeko hiru teknikekin gutxienez.</p>	1, 2, 4, 5	2 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, arazoak konpontzeko teknika desberdinei buruz. Ondoren, ikasleek fitxategi pertsonaleko hiru teknika irudikatu beharko dituzte.	Ikasleek arazoak konpontzeko teknikak identifikatuko dituzte. Ikasleek hainbat teknika jarriko dituzte praktikan, eta teknikak eraginkorak izateko beharrezkoak diren komunikazio-teknikekiko autoebaluazioa egingo dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.

J8.2-E8 Ikasleen praktika autonomoa: taldeko teknika desberdinak barne hartzen dituen fitxategi zenbakitu bat egitea: bakoitzaren abantailak eta desabantailak adieraziko dira, hainbat egileren arabera (Aguilar, M.J., "GERZA", Espada J. P., beste batzuen artean).				X			
J9 Erabakiak hartzeko prozesuari buruzko azalpena. Prozesuko faseak eta taldeko erabakiak hartzeko moduak. J9.1-E9 Egoera zailak aztertzeko moduari buruzko antzezpena egitea eta erabakiak hartzeko modurik egokiena erakustea.	1, 2, 6, 11, 12	1,5 h.	X	X	Irakasleak klase magistrala emango du, erabakiak hartzeko moduari buruz. Ikasleek egoera zailak aztertzeko modua irudikatuko dute eta erabakiak hartzeko modurik egokiena bilatu beharko dute.	Ikasleek erabakiak hartzeko prozesua osatzen duten faseak bereizten ikasiko dute.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J10-E10 Informazio-liburuxka bat lantzea, eskolan gatazkak konpontzeko bitartekaritzak/negoiazioak duen garrantziari buruz.	1, 2, 9, 13,14, 15	1 h.		X	Ikasleek haur-eskola batean lanean ari direla irudikatuko dute eta liburuxka bat landuko dute, gatazkak konpontzeko orduan elkarrizketak eta, ondorioz, negoziazioak edo bitartekaritzak, duten garrantziaren gainean familiak sentibilizatzeko.	Gatazkak konpontzeko negoziazioak edo bitartekaritzak duten eraginkortasuna ulertzeko ikasleek sormen-gaitasunak garatzea lortu nahi da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J11-E11 Ikasleak taldeka jarri eta bitartekari baten zereginari buruzko horma-irudi bat landuko dute.	1, 2, 9	1 h.		X	Ikasleak taldeka jarriko dira eta bitartekari baten zereginari buruzko horma-irudi bat osatzeko eskatuko zaie.	Ikasleek bitartekari ona izateak eta horren ondorioak duten garrantzia baloratzeko balio du.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
12-E12 Ikasleen praktika autonomoa: gatazken konponbiderako taldeko ebaluazioa egiteko jolas eta ariketak bilatzea eta lantzea.	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7, 13, 14, 15	2 h.		X	Ikasleek gatazken konponbiderako dinamikak errazteko materialak landuko dituzte.	Ikasleek aipatutako teknikak gelan aplikatzeko lana erraztuko duten baliabideak eta materialak eskura edukitzea lortu nahi da.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak. Material suntsikorra.

<p>J13-E13 Haur Hezkuntzako etapan arazoak konpontzeko moduari buruzko liburuak irakurtzea, adibidez: "Hablar hasta entenderse" "Tu ganas y yo gano". "Cómo resolver conflictos creativamente" "Cómo educar en valores" "Mediación en la escuela" "Resolución de conflictos en el aula." "Manual para educadores" "Crecer sin peleas" Besteak beste...</p> <p>J13.1-E14 Hautatutako liburutik ateratako ideia nagusiak, irakasleak gelan adierazitako kontzeptuekin alderatu eta erakustea.</p>	1, 2, 3, 4, 5, 6, 7	3 h.	X	X	<p>Liburuei esker, ikasleek ezagupenak aberastuko dituzte eta gatazkak konpontzeko ideia eta modu berriak ezagutuko dituzte.</p> <p>Ikasleek hiztegia aberastuko dute eta taldearen aurrean komunikatzeko eta ideiak adierazteko gaitasuna hobetuko dute.</p>	<p>Ikasleek hiztegia aberastea bilatzen da, eta jendaurrean hitz egiteko gaitasuna indartzea gogoeta eta kudeaketa egiteko kompetentzia eta informazioa lantzeko kompetentzia sustatzea.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak. Askotariko bibliografia.</p>
<p>J14-E15 Ikasleak taldeka jarri eta gelan bertan gatazkak konpontzeko txokoa diseinatu dute. Txokoa eta dagokion dekorazioa diseinatu eta landuko dute. Bete behar diren dokumentuak diseinatu eta landuko dituzte. Komunikazio-trebetasun oinarrikoenak erakusteko gutxienez hiru jarduera diseinatu eta landuko dituzte. Ikasleek gatazkak nola konpontzen diren ulertzeko hiru ipuin diseinatu eta landuko dituzte gutxienez. Autokontrola laguntzeko hiru musika edo abesti hautatu eta proposatu dituzte. Gatazkaren aurrean lasaitasuna sustatzeko erlaxazio mota desberdinak hautatu eta proposatu dituzte.</p>	Todos	7 h.		X	<p>Ikasleek UD honetan ikasitako guztia baliatuko dute gatazkak konpontzeko txokoa diseinatu eta sortzean. Kontuan hartuko dira haurrean eboluzio-etapa desberdinak, bai eta hezitzaile-profila ere.</p>	<p>Ikasleak tutorearen lekuan jartzea lortu nahi da eta orain arte ikasitako guztia gatazkak konpontzeko txoko bat diseinatzeko erabilteza.</p>	<p>Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak. Material suntsikorra.</p>

J15-E16 Txokoaren proposamena talde osoari erakustea. Hurrekin gatazkak konpontzeko simulazioa egitea, betiere Haur Hezkuntzako profesional gisa dagokion profila kontuan hartuta.	Todos	1 h.	X	X	Ikasleek UD honetan ikasitako guztia baliatuko dute gatazkak konpontzeko txokoa diseinatu eta sortzean. Ikasleek kontuan hartuko dituzte haurren eboluzio-etapa desberdinak eta hezitzaile gisa dagokien profila.	Ikasleengan komunikatzeko gaitasunak sustatu nahi dira eta egindako proposamenen eta behar dituen materialen arteko bat-etortzea ziurtatu.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J16-E17 Tutoretza baten simulazioa: ikasleek Ikastetxearen Hezkuntza Proiektuan parte hartzen ez duten eta tutoretza-lana boikoteatzen duten gurasoekin negoziatu beharko dute.	Todos	1,5 h.	X	X	Ikasleek UD honetan ikasitako guztia baliatuko dute tutoretza zail baten simulazioa egitean. Kontuan hartuko dira gurasoen kultur maila, adina eta ezaugarri personalak, eta hezitzaile-profila ezaugarri horietara moldatuko du. Negoziaketa baten urrats guztiak eta dokumentuak prestatzeko urratsak ondo antolatuko dituzte.	Ikasleengan komunikatzeko gaitasunak sustatu nahi dira eta egindako proposamenen eta behar dituen materialen arteko bat-etortzea ziurtatu.	Power Point-eko aurkezpena. Kanoia. Ordenagailu eramangarria. Ikasgelaren berezko baliabideak.
J17-E18 Talde-lana, ikasleen hasierako ebaluazioa egiteko behar diren datuak jasotzea. J17.1-E19 Talde-lana, ebaluazio-tresnak aplikatzea. J17.2-E20 Talde-lana, jasotako informazioa ondo interpretatzea.	1, 2, 13 14, 15	1,5 h.		X X X	Ikasleak taldeka jarri eta haur-talde bat behatzeko eskatuko zaie. Ondoren, komunikatzeko eta gatazkak konpontzeko gaitasunak bereganatzen haurrek duten heldutasuna ebaluatzeko beharrezkoak diren datuak lortzeko eskatuko zaie. Horretarako, komunikazio-gaitasunak eta gatazkak konpontzeko gaitasunak neurtuko dituzten ebaluazio-tresnak erabiliko dira, eta aipatutako gaitasunak ondo bereganatzeko urrats egokiak emango dira. Ondoren, irakasleari txosten bat emango diote, eta jasotako informazioa eta lortutako ondorioak adieraziko dituzte bertan. Irakasleak txostena zuzendu eta baloratuko du.	Komunikatzeko trebetasunekin eta gatazkak konpontzeko gaitasunarekin erlazioan esku hartzeko prozesua eta emaitza ebaluatzeko balioko du, betiere erabilitako estrategia eta tresnen aukeraketa baloratuz.. Jasotako informazioa ondo interpretatzeko. Hobetzeko eremuak identifikatu eta konpontzeko balioko du.	Testu-liburua. Ordenagailuak. Inprimagailua. Ebaluazio-tresnak.



E21 Berariazko azken ebaluazio-proba. Idatzizko proba bat ebaztea.		1 h.		X	Ikasleek landutako gaiaren inguruko kontzepturik garrantzitsuenen galdeketa bat erantzungo dute banaka	Unitate didaktikoan bereganatutako ezagupenak erakusteko balio du.	Azterketa.
OHARRAK							
<ul style="list-style-type: none"> Ikaskuntza-jarduera gehienak ikasgelan bertan egiteko modua bilatu da; hala ere, denboralizazioan aurreikusitakoa baino denbora gehiago beharko dute ikasleek zenbait jarduera amaitu ahal izateko. Ikaskuntza-jardueretan eta ebaluazioa egitean landu dituen materialak emango dizkio ikasleak irakasleari, berak zuzentzeko eta baloratzeko. Ikasleek lan egiten duten bitartean, irakasleak ikasleen jokaera behatuko du, eta adierazle batzuk kontuan hartuta, datuak jasoko ditu eta ondorengo ebaluazioa egiteko erabiliko ditu. 							



